

Gipuzkoako Lurralde Historikoko hitzarmen kolektibo sektorialak.
 Datak, Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratzeari dagozkie

Hitzarmena	Funtzio – eremua	Argitaratze datak			
<p>Adineko pertsonentzako egoitzak</p>	<p>Adinekoen arretarako egoitzen sektorean aritzen diren enpresetan eta establezimenduetan, adarretan, negozio-lineetan edo enpresa-ataletan; nola behin betiko hala behin-behineko egonaldiak egiten direnak izan daitezke egoitza horiek. Eguneko zentroetan, zentro sozio-sanitarioetan eta tutoretzapeko etxebizitzetan ere ezarriko da hitzarmen kolektibo hau. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren eraginetarako, zentro sozio-sanitarioak honakoak izango dira: Mendekotasuna dutenei (adinekoei) arreta eta babesa eskaintzen dizkieten zentro guztiak. Era berean, hitzarmen honek eragina izango du jardute-eremuan zerbitzua eskaintzen duten adarretan, negozio-lineetan, ataletan edo beste unitate produktibo autonomoetan, baita enpresaren jarduera nagusia beste bat baldin bada edo zenbait sektore produktibori dagozkien jarduera bat baino gehiago baditu ere.</p> <p>Hitzarmen hau ezartzeko eremutik kanpo geldituko dira espresuki jarduera nagusia berariazko osasun zaintzak edota prestakuntzak egitea duten enpresak. Salbuespen honek, ordea, egoiliarren eta erabiltzaileen osasun laguntzari ez die kalterik egingo, adinagatik edota mendekotasunagatik dituzten arazoei dagokienez. Hitzarmen hau ez da ezarriko, halaber, etxez etxeko laguntza eskaintzen duten enpresetan</p>	<p>2006/02/03</p>			

Altzari merkataritza	Altzari Merkataritzarekin zerikusi duen edozein jarduera Gipuzkoa barruan burutzen duten lantoki guztiak	1998/06/23	1999/03/22		
Altzarigintza eta altzari osagarrien industria	1.Altzari fabrikak. 2.Zurgintza. 3.Kurbadun altzariak. 4.Somierak. 5.Altzari tailistak. 6.Ihizko altzariak. 7.Altzarien industri osagarriak.	99/07/09	Berrikuspena: 00/03/03		
Aparkamendua eta trafiko-antolamendua	Hitzarmen honetako xedapenen menpe geratuko dira trafikoa eta bere ordutegia eta herri bideetako aparkamendu mugatua arautu eta kontrolatzeko xedea duten enpresak. Era berean, hitzarmen honen menpean geratuko dira aipatutako enprekin lan-harremanez loturik dauden langileak ere	2024/06/12			
Arrainen eta itsaskien handizkariak	Hitzarmen Kolektibo hau probintzia mailakoa da eta Gipuzkoan kokaturiko edo beren jarduerak bertan burutzen duten arrain fresko eta izoztuaren merkataritzan diharduten handizkarien enpresa guztiak (Esportatzaileak, Inportatzaileak eta Biltzaileak) hartzen ditu bere baitan	2022/02/20	2024/02/07: Soldata berrikuspena	2025/02/20	
Arte Grafikoak eta Industria laguntzaileak, Paperaren eta Kartoiaren maneiatuak eta Argitaletxeak	Hitzarmen honen aplikazioa derrigorrezkoa izango da, Enpresa, Entitate edo Erakunde publiko edo pribatu guztientzat eta beraien langileentzat, haiek Arte Grafikoetako eta bere Industri Laguntzaile, Paper eta Kartoiaren Maneiatuak eta Argitaletxeen jardueretan aritzen direnean. I.Arte Grafikoetako Industriak eta Laguntzaileak bezala orokorki hartuak izango dira, batera edo berezirik, konposaketara, grabaketa edo inprimaketara, kolore batean edo gehiagotan, eta edozein sistematan, paper, kartoi, ehun, pelikula edo edozein gairen gainean konposatu, erreproduzitu, grabatu edota inprimatzera dedikatzen direnak. Soilki argibide gisa eta mugatzeko asmorik gabe eta funtzio-eremu honetan honako jarduera hauek barneratuak ulertuko dira	2023/02/03			
Autoeskolak	Hitzarmen honek, Gipuzkoako lurralde osoan Autoeskola izeneko irakaskuntza espezializaturako lantoki guztiengan izango du eragina.	2006/09/18	2007/02/26: Soldata berrikuspena		

Bakailao-ontzi bikoteak eta bakailao-ontziak	Hitzarmen kolektibo honetan sartuko dira bakailao eta antzeko espezieak arrantzatze bukeen sektorean (bakailao-ontzi bikote eta bakailao-bukeak) ari diren enpresa eta langile guztiak Hitzarmen kolektibo honek 1976ko apirilaren 8ko Ministerio Aginduz onartu zen Bakailao Bukeetan Arrantzatze Ordenantza ordezkatu du. Arrantzatutako espeziak kontserbatzeko eta tratatzeko gazitze zein izozte sistema erabili ahal izango da.	1999/06/15			
Beiragintza	Beira huts beltz edo ontziki fabrikazioa. Honako produktuak sartzen dira: Botilak, bonbonak, txanbilak, flaskoak eta, oro har, edozein motatako ontziak, beltz edo berdeak kolorez hauek izan ditzaketen tonu desberdinetan, neurriak bereizi gabe eta merkatuan duten izena dutela, barne harturik betiere isolatzaileak, moldeatuak eta beira-zuntzak. b)Beira huts zuriaren produkzioa oro har, eta hau hobetzeko tailerrak, fabrikatzaileak izan ala ez	02/08/13	Berrikuspena: 03/02/26	Berrikuspena Soldata-egokitzapena 2005/02/08	Berrikuspena: soldata-egokitzapen 2005/03/21
Bergarako ehungintza	Honako Hitzarmen Kolektibo hau, Ehungintzarako Lan Ordenantzaren funtzio eremuan barnebidutako jarduera garatuz, Bergaran kokaturik dauden enpresa guztiei aplikatuko zaie	97/11/26			
Bide-Garbiketa Publikoa eta Hiri-Hondakin Solidoen Bilketa	Bide Garbiketa Publikoko enpresak	2024/03/05 2024/10/30 Akats zuzenketa	2024/11/04 Batzorde paritarioaren akordioa	2024/11/05 Hitzarmen Kolektiboaren ondoriozko akordioa	2025/02/25: Soldata berrikuspena
Bingo-aretoak	Bingo jokuan jarduten duten enpresa guztiek bete beharko dute	2004/11/26			
Bulego eta Despatxoak	Honako hitzarmen kolektibo hau, Bulegoak eta Despatxuak jardueran sartuta dauden enpresei aplikatuko zaie. Hona, adierazgarri gisa, halakotzat hartzen direnak: Profesionalen despatxuak, enpresei aholkularitza orokorra ematea (zerga arlokoa, merkataritzakoa eta abar), merkatal enpresak eta azterketa teknikoak burutzen dituztenak, aholkularitza eta	2007/09/12	2007/12/10: Geroa-BGAfri ezarpenei buruzko Akordioa	2008/02/18 200rako Soldata berrikuspena	2009/02/23: Soldata berrikuspena

	auditoretzako enpresak, telemarketing, elkargo profesionalak eta bestelako bulego motak, administrazio bulegoak salbu				
Edari freskagarrien industria	Honako hitzarmen kolektibo hau edari freskagarrien enpresetan diharduten langile guztiei aplikatuko zaie. Edari freskagarritzat hartzen direnak, ondorengo sailkapenean baneratu daitezkeen alkoholik gabeko edariak dira: Ur gasdunak, gaseosak, prestatutako edateko urak, fruta-zukuzko edariak, estraktuzko edariak eta tuberkulu, hazi eta frutetatik erakarritako edariak, hortxata eta edari aromatizatuak izan ezik	02/04/02	Berrikuspena: 02/04/22		
Ehungintzaren merkataritza	Honako hitzarmen kolektibo honek Ehunaren Merkataritzako Gipuzkoako enpresa guztietako lan-harremanak arautuko ditu. Beste jarduera batzuk burutzen dituzten enpresetan ere hitzarmen honek arautuko ditu lan-harremak, ehungintza bada enpresa horietako jarduera nagusia	2023/03/03	2023/02/29: Akats zuzenketa	2024/02/07: Soldata berrikuspena	2025/02/13: Soldata berrikuspena
Elikaduren Industria eta merkataritzako	a) Janari dendetako xehekariak. b) Supermerkatuak. c) Kontsumorako ekonomatoak. d) Kontsumo eta banaketa kooperatibak. e) Harategiak eta urdaitegiak. f) Kafe xigortzaileak. g) Handizkako elikagaiak. Hitzarmen hau, halaber, Gipuzkoan elikagaiak egin eta horien merkataritzan diharduten enpresei aplikatuko zaie, baldin eta ez badaude bestelako ordenantza edo hitzarmen kolektiboen funtzio eremuaren barruan	2023/06/05	2024/02/07: Soldata berrikuspena	2025/02/12: Soldata berrikuspena	
Emakumeen ile-apaindegiak, ilerako institutuak, gimnasioak	Emakumeen ile-apaindegiak, ilerako institutuak, gimnasioak	2016/09/23			
Eraikinetako eta lokalen garbikuntza	Eraikin eta lokalen garbiketara dedikatzen diren enpresa guztiak daude hitzarmen honen xedapenen menpe, duten egitura juridikoa eta gizarte egoitza nahiz xedea edozein izanik ere, konbenioarekiko menperatze kausa honakoa	2024/01/10			

	delarik: Partzialki bada ere, Gipuzkoako Lurralde Historikoan eraikinak eta lokalak garbitzea				
Eraikuntza eta obra Publikoa	Jarraian adierazitakoak dira oinarrizko hitzarmen kolektibo honetan itundutako klausulek ukitzen dituzten enpresak: a)Eraikuntza eta Obra Publikoetara dedikatzen direnak. b)Portuetako Obretarako untzi, artefaktu flotagarri eta trenbide lagungarrietakoak. c)Harrobiak, Hareatzak, Legartzak eta Industri Lurren Ustiapena eta Manufaktura. d)Igeltsu eta Kare enpresak. e)Hormigoia fabrikatzera eta banatzera dedikatzen diren enpresak. f)Obrako segurtasun plangintzetako materiala egitera dedikatzen diren enpresa lagungarrietako langile guztiak, obrako segurtasun elementu horiek garbitzen, jartzen eta mantentzen ari diren bitartean, oinarrizko hitzarmen kolektibo honetan ezarritako baldintzapean egongo dira, aldarnioak ezartzen jarduten duten langileak izan ezik	2022/09/22	2023/02/08 Soldata berrikuspena	2024/02/05 Soldata berrikuspena	
Errepide bidez egiten den merkantzien garraioak	Hitzarmen hau errepidean zeharreko merkagaien garraiorako enpresa guztiei aplikatuko zaie. Hitzarmen kolektibo honek espreski ukitzen dituen jarduerak ondorengoak dira: —Merkagaien zerbitzu erregularrak. —Merkagaien aukerazko zerbitzuak. —Arrain garraioa. —Garraio hozkailudunak. —Likidoen garraioa. —Garraio bereziak. —Merkagaien tokiko garraioak. —Garraio agentziak. —Ibilgailu automobilak dituzten Trenbideen bulego nagusiak eta laguntzaileak. —Altzarien garraioa, mudantzak eta altzari-zaintza.	2008/07/22	2009/03/05: Soldata berrikuspena		
Errepide bidezko garraioa	Bidaiarien errepidezko garraio-enpresa guztiak behartzen ditu, erabilera bereziko zerbi tzu erregularrak, autobusez, autokarrez eta mikrobussez zerbitzu erregularrak, eskatu ahalako zerbitzuak eta hiri-zerbitzuak ematen dituztenak eta	2024/06/21			

	Gipuzkoako probintzian errotuta egon edo euren zerbitzuak lurralde horretan kontratatzen dituztenak.				
Esku hartze Soziala	Hitzarmen hau Esku Hartze Sozialaren inguruko jarduerak gau zatzten dituzten enpresa, elkarte, fundazio, zentro, entitate edo antzeko erakundeei (aurrerantzean erakundeak) aplikatuko zaie, baldin eta erakunde horien izaera juridikoa eskubide publikokoa ez bada, edo erakunde horren akziodun nagusi eta bakarra Herri Administrazioen bat ez bada	2024/04/15	2025/03/7: Soldata berrikuspena		
Farmazia-bulegoak	Farmazia bulegoak.	2012/05/31	2001/03/12rako soldataren berrikuspena	2002/03/27rako soldataren berrikuspena	
Fruta eta nekazaritza-produktuen handizkariak	Hitzarmen honek fruta eta barazki handizkarien industriako enpresa guztiak ukituko ditu, eta langile guztiei aplikatzekoa izango da	2016/07/13			
Gaixoak eta istripua izandakoak ambulanzietan eramateko garraioa	Osasen-arloko garraioko edozein modalitatean aritzen diren enpresek eta langileek	2005/06/02			
Garraio-kudeatzaileak	Hitzarmenak behartzen die soilik edo bereziki edota jarduera nagusiko izaeraz, Nazioarteko Garraioak antolatzaera dedikatzen diren enpresei, eta nolana ere aduana iragaite erregimenean administrazio baimena bidez gaituak egon beharko luketen jarduerak burutzen dituzten haiei, aipaturiko jarduerak honako hauek direlarik: —Norbere izenean garraiolariarekin kontratatzea, aldi berean, baita norbere izenean ere, kargatzaile eraginkorarekin kontratatatu duten garraio baten kargadore gisa, honen aurrean, garraiolariaren funtzioa betez.	2013/10/28	2014/02/19: 2014rako soldataren berrikuspena		

	—Kargatzaileak izendatutako garraiolariaren eskura gordailuzain bezala igorritako merkantzien harrera eta xedapena				
Pastelgintza eta gozogintza	Hitzarmen kolektibo honek gozogintza, pastelgintza eta opilgintza industriara eta merkataritzara dedikatzen den enpresa eta langile oro behartuko du, baita administrazioko langileak, menpekoak eta laguntzaileak ere	2023/07/05			
Hortz-protesiak	Hitzarmen Kolektibo honek, hortz protesietako berezko eragiketa guztietan eraikuntza, konponketa eta interbentzio lanak burutzen dituzten langile eta enpresariak eta hauen menpeko langileak, pertsona natural nahiz juridiko guztiak jaso eta arautzen ditu. Enpresa gisa: Hortz protesien ondorengo adarretan beren iharduera garatzen dutenak: —Mugikorra, kromo-kobaltozkoa edo urrezkoa. —Mugikorra, akrilikozkoa. —Finkoa, portzelana metalezkoa edo portzelanazkoa. —Ortodontzia Finkoa. —Ortodontzia Mugikorra. Langile gisa: Bertan lanbide zerbitzuak ematen dituztenak, funtzio teknikoak dituztenak nahiz eskulanak burutzen dituztenak.	02/02/14	Berrikuspena: 02/03/13	Berrikuspena: 03/02/26	Berrikuspena: 2004/03/05
Gipuzkoako titulartasun publikoko kirol-instalazioak	Kirol anitzeko instalazio publikoetan lan egiten duten langileak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako kirol eskoletako langileak.	2023/08/16	2024/04/15: Soldata berrikuspena	2025/02/25: Soldata berrikuspena	
Ikuskizunetako eta kiroleko lokalak	Hitzarmen Kolektibo honek Gipuzkoako ikuskizun eta kirol lokaletako lan-harremanak arautuko ditu. Gipuzkoako probintzian, lokal itxi nahiz irekietan ondorengo jarduerak burutzen dituzten enpresei eta euren langileei aplikatuko	2011/09/30	2012/03/14: Soldata berrikuspena		

	<p>zaie: Antzerki-emanaldiak, zirkuak, barietateak, jai-amaierak, dantzaldiak, jolas-parkeak, txiki-parkeak eta abar. Era berean, kirolari emandako lokaletan burutzen direnak ere, esate baterako, futbola, pilota, tenis, golf, boloak, patinajea, frontoi industrialak, zaldi, galgo, bizikleta edo ibilgailu-lasterketak, igerilekuak eta abar. Halaber, aisialdi, kultur, kirol eta abarretako sozietateei ere aplikatuko zaie aurrean aipatutako edozein jarduera betetzen duten langileei eta ikuskizun horietarako sarrerak saltzen dituzten enpresei dagokienean, errekarquak kobratzen dituzten ala ez kontuan izan gabe, eta atxikiriko lokaletan barnebildutako instalazioak ustiatzen dituztenei, baldin eta erabili ahal izateko bezeroek sarrera ordaindu behar badute.</p>				
Informazioaren eta dokumentazioaren kudeatzaileentzako sektore	<p>Gipuzkoako lurralde historikoko titularitate publiko nahiz titularitate pribatuko liburutegi, liburutegi izendapen berriak dituzte zentroak, Medialab, gizarte laborategiak edo antzeko izaera duten liburutegi funtzioa betetzen dutenak edota artxiboan zein dokumentazio zentroetarako lan egiten duten enpresak, baldin eta enpresa horien izaera juridikoa eskubide publikokoa ez bada, edo haien akziodun nagusi bakarra Herri Administrazioen bat ez bada.</p>	2024/05/21	2024/07/05 Akats zuzenketa	2025/02/25: Soldata berrikuspena	
Industria siderometalurgikoa	<p>Honako Hitzarmen Kolektibo honek Gipuzkoako Lurralde Historikoan ezarritako enpresak edo euren jarduerak lurralde horretan burutzen dituztenak, jarduera siderometalurgikoari emanak nola produkzio prozesuan hala era guztietako eraldaketan, eta enpresa horietan diharduten langileak ukituko ditu. Era berean, siderometalurgiarekin zuzenean lotuak dauden izaera laguntzaileko zereginak eta atal horretako instalazio, muntaia edo konponketa lanak burutzen dituzten enpresak, zentroak eta tailerrak.</p>	2023/06/08	2023/06/19 Akats zuzenketa	2024/02/02 Soldata berrikuspena	2025/02/10: Soldata berrikuspena
Jostailuen merkataritza, handizka eta txikizkakoa	<p>Honako hitzarmen kolektibo hau eremu probintzialekoa da eta, handizka nahiz txikizka, jostailu merkataritzako jardueretara dedikaturik lan zentroak Gipuzkoan kokatuta dituzten enpresak ukituko ditu, naturalak nahiz juridikoak</p>	2006/03/22			

	izan.				
Larrukigintzaren merkataritza	Honako hitzarmen kolektibo honek larrua lantzeko biltegi, marrokineria merkataritza, larru gaiak, bidaia eta kirol gaiak, eskularru, larrutegi eta oinetako establezimenduetako enpresa guztietako lan-harremanak arautuko ditu.	2007/11/08	2008/02/11: soldata berrikuspena	2008/04/01: akats zuzenketa	2009/03/04: Soldata berrikuspena
Mahats, garagardo eta edarien industria eta merkataritza	Ardoen elaborazioa, hazkuntza eta esportazioa, ardo apartsuen elaborazioa, ardo gasifikatuen fabrikazioa, ozpinen fabrikazioa, vermut eta aperitibo alkoholdunen fabrikazioa, pattar, holanda eta ardo-alkoholen fabrikazioa, beren jatorria edozein izanik ere; pattar konposatu eta likoreen fabrikazioa, hartzitu gabeko muztioen, muztio natural, sufratu eta kontzentratuen elaborazioa eta fabrikazioa, eta mahatsetik eratorritako, arlope, mistela eta gainerako en elaborazioa eta fabrikazioa; sagardoen fabrikazioa, eta sagargintzako jarduera guztiak, sagardoaren fabrikazioaren jarduera osagarri gisa egiten direnean.	99/07/12	Berrikuspena: 00/03/07		
Merkataritza orokorra	Honako Hitzarmen Kolektibo honek eremu probintziala izango du eta beren lantokiak Gipuzkoan dauzkaten Enpresa guztietan aplikatuko da. Merkataritza sektorean estatu mailako, probintziarteko, probintzi mailako edota Enpresako Hitzarmen Kolektiborik ez duten enpresak eta berorien langileak ukituko ditu.	2013/11/05	2014/03/07: 2014rako soldata berrikuspena		
Metalaren merkataritza	Metalaren merkataritza sektoreko enpresa guztiak	2024/10/11	2024/11/07: Hitzarmen kolektiboa aldatzeko akordioa	2025/02/10	
Naturguneetako Salbamendu eta Sorospena	Gipuzkoako Lurralde Historikoan enpresek eta erakunde pribatuek kudeatzen dituzten administrazioei kontratu publikoekin lotutako naturaguneetako salbamendu eta	2024/08/28			

	sorospen zerbitzuen eraginpeko				
Okintza	Honako Hitzarmen Kolektibo hau Gipuzkoako probintzian, edozein formato, izen, konposizio edo presentazio duen ogia edozein fabrikazio-prozedura bidez egin eta saltzera dedikatzen diren enpresa guztiei aplikatuko zaie.	2024/09/18	2025/02/13: Soldata berrikuspena		
Ospitalizazioa, klinika mediko kirurgikoak	Sektore pribatuko Ospital, Klinika Mediko-Kirurgiko eta Diagnosi Zentroetako enpresa eta langile guztiak ukituko eta obligatuko ditu.	00/01/17	Berrikuspena: 00/03/09		
Sukaldaritza-arloko enpresak	<p>– Kontsumitzeko prest dauden produktuen zerbitzuak ematen dituzten enpresak, hala nola jatetxeak, bazkari-etxeak, ekitaldietarako catering-establezimenduak, janari lasterreko establezimenduak, pizzeriak, hanburgesategiak, ogitarteko-dendak, krepedendak, txosnak, foodtruckak, sukaldari tza modernoko kateak, hondartzako txosnak, terrazak, mahai txoak, kioskoak eta abar.</p> <p>– Kolektibitateentzako elikagaiak eta edariak (lantokiak eta ikastetxeak, osasun-zentroak, jantoki kolektiboak, ospitaleetako jantokiak, egoi tzak, etab.), bai bezeroen instalazioak (sukaldeak) bai zerbitzuak ematen dituen enpresaren instalazioak (sukaldeak) erabiltzen badira ere.</p> <p>– Kafeak, tabernak, taberna bereziak, kafetegiak, garagardotegiak, whiskitegiak, izozkitegiak, txokolategiak, dastalekuak, te-aretoak eta antzekoak, nahiz eta jatekorik ez zerbitzatu.</p> <p>– Dantza lekuak edo diskotekak, kafe-antzokiak eta antzekoak, baita kasinoetako, bingoetako eta joko-aretoetako janari- edo edari-zerbitzuak ere.</p> <p>– Billarrak, mota guztietako jolas-aretoak eta «cyberkafeak» edo dibertimendurako eta aisialdirako beste zerbitzu ba tzuk.</p> <p>– Janari elaboratuak edo prestatuak eta edariak banatzeko zerbi tzuak, oinez edo garraio-araudian ezarritako administraziobaimenik behar ez duen edozein ibilgailutan, establezimenduaren beraren zerbitzua emateko edo beste enpresa baten enkarguz, plataforma digitalak barne, edo horien bidez.</p>	2023/06/19	2024/01/19 Batzorde paritarioaren erabakia	2024/02/06 Hitzarmen Kolektiboaren ondoriozko akordioa	2025/02/06 Soldata berrikuspena

	– Taberna-jate txe zerbitzuak eskaintzen dituzten kirol-establezimendu, gimnasio, osasun- eta ongizate-zentro eta bainuetxe guztietako jate txe-zerbitzuak.				
Ostatu-etxeak	<ul style="list-style-type: none"> - Hotelak, hostalak, hotel-egoi tzak, hostel-egoi tzak, aterpeak, paradoreak, hotel-apartamentuak, egoi tza-apartamentuak, motelak, oporretako hiriak eta kanpalekuak. - Pentsioak, fondak, apopilo-etxeak eta ostatuak. - Helburu turistikoekin merkaturatutako etxe bizitzak eta apartamentuak. - Jatetxe ak eta kafetegiak, betiere, hitzarmen honen eraginpeko enpresaren antolakunde-eremuaren barruan baldin badaude 	2022/08/24	2023/02/09 Soldata berrikuspena	2024/02/07 Soldata berrikuspena	
Pasta, papera eta kartoigintza	Honako Oinarrizko Hitzarmen Kolektibo hau Gipuzkoako Probintziako Pasta, Paper eta Kartoi fabrikazioaren Sektorearen barruan dagoen Enpresa eta Lantoki orok bete beharrekoa da.	2022/08/22	2023/12/20	2024/02/02 Soldata berrikuspena	2025/02/10: Soldata berrikuspena
Tindategiak eta garbiketa, arroparen lisaketa eta garbiketa	Tindategi eta Arroparen Ikuzketa, Plantxaketa eta Garbiketaren Industrian Lan Ordenantzaz arautzen diren Enpresa eta langile guztiak ukitu eta behartuko ditu.	00/11/10			
Transitorioen	Hitzar men hau enpresa hauei aplikatuko zaie: soil-soilik edo jarduera nagusi izanik, nazioarteko garraioak antola tzen lan egiten duten enpresei, edota aduanak iragateko erregimenean egiten diren garraioak antola tzen dituztenei. Jarduera horietarako administrazio-habilitazioa izan beharko dute. Hauek dira, hain zuzen, jarduera horiek: Norberaren izenean garraiolariarekin garraio bat karga tzaile gisa kontrata tzea, beraiek norberaren izenean benetako karga -tzailearekin kontratatu dutena, haren aurrean garraiolariaren funtzioa betez. Kon tsig natario gisa beraiei bidalitako salgaiak har tzea eta karga tzaileak izendatutako garraiolariaren eskura jartzea.	2023/05/05	2024/02/15 Soldata berrikuspena		
Zementuaren	–Produktuak fibrozementuz fabrikatzea, besteak beste,	99/11/19	Berrikuspena:		

deribatuen industriak	plakak, tutu eranskinak eta gainerako elementuak. —Tailerrean landu, armatu, ondoren atezatu edo aurreatezatutako hormigoi armatu, zementuzko mortairu eta masa mortairuzko gai guztiak nahiz zelulosa-zementuzko eta pomiz-zementuzko gaiak fabrikatzea, hala nola, adokinak, baldosak, blokeak, zintarriak, gangatilak, deposituak, moldeatuak, harri artifiziala, zutoinak, teilak, tutuak, habeak eta bestelako egitura elementuak, eta abar.		00/03/06		
Zeramikaren industria	Honako Hitzarmen Kolektibo honek eremu probintziala izango du eta beren lantokiak I.Material erregogorrek fabrikatzea. II.«Gres» materialak fabrikatzea. III.Produktu urratzaileak fabrikatzea. IV Oro har zeramika fabrikatu eta eskuz lantzea. Honako hauek biltzen ditu: V.Axuleiu arruntak eta artistikoak fabrikatzea. VI.Lixa eta esmerila fabrikatzea. VII. Aipatutako industrien jarduera lagungarri eta osagarri guztiak. Enpresaren jarduera nagusiari lagundu eta hura laguntzera mugatuak egoteagatik, irabazizko xederik gabeko mota orotako tailerrek eta ustiapenek, obrek eta zerbitzuek dute izaera hori. Izaera esklusiboz eta fabrikazio eta eskulanetik kanpo zeramikazko produktuak besterik gabe merkaturatzea hitzarmen honetatik at dago	02/08/08	Hutsen zuzenketa: 02/11/22	Berrikuspena: 03/02/26	Berikuspena: soldataren egokitzapena 2005/03/30
Zerbitzu-guneak	Gasolindegi sektorearen barruan egon eta hitzarmen honen lurralde eremuan sartzen diren enpresa eta langile guztiei aplikatuko zaie hitzarmen hau.	2022/09/27	2023/02/10: Soldata berrikuspena	2023/02/23: akats zuzenketa	2024/02/21: Soldata berrikuspena
Zinema-emanaldiak	Hitzarmen Kolektibo honek izaera lokala du, eta Donostian Emanaldi Zinematografikoetako aretoak ustiatzen dituzten enpresa guztiak ukitzen ditu, baita enpresa horietan bere zerbitzuak ematen dituen pertsonal guztia ere	2003/08/14			

Zurgintza	<p>Honako Hitzarmen Kolektibo honek ukitutako jarduerak ondoko hauek dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.Baso-lanak. 2.Zerrategiak. 3.Egur zerrategiak. 4.Ontzi zerrategiak. 5.Arotzia mekanikoa. 6.Tailerreko arotzia. 7.Urbazterreko arotzia. 8.Pertsianak. 9.Zurgintza. 10.Tapizgintza. 11.Bilarrak eta pianoak. 12.Erloju-kaxen fabrikak. 13.Nezeserrak, zorroak eta antzekoak. 14.Xafla eta taula kontraxafatua. 15.Taula listoituak. 16.Ate prefabrikatuak. 17.Partikula aglomeratudun taulak. 18.Upelgintza. 19.Karrozeriak. 20.Gurdigintza. 21.Tornugintza. 22.Ehun-tornugintza. 23.Zur-tailagileak. 24.Arte erlijiosoa eta zuraren dekorazioa. 25.Modelistak. 26.Markoak eta moldurak. 27.Saskigintza, muina eta zumea. 28.Lezkazko aulkiak. 29.Brotxak, pintzelak, eskobilak eta erratzak. 30.Enbalajeak. 31.Orkoigileak, abarkak eta eskalapoiak. 32.Tarima jartzaileak. 33.Kutxilatzaileak eta ezkoztatzaileak. 34.Akordeoiak, jostailuak eta puru-kaxak. 35.Bandurriak, kitarrak eta kontrabaxuak. 36.Bastoiak, aterkiak, pitak eta antzekoak. 37.Egurrezko errotak. 38.Fruituentzako ontziak. 39.Zurezko pintzak, metroak eta antzekoak. 	2024/08/13	2025/02/10		
-----------	--	----------------------------	----------------------------	--	--

	<p>40.Zur-biltegiak orokorrean. 41.Zurezko esekitokiak. 42.Takoiak, zokaloak, kanbriloiak eta oinetakoentzako zurezko falkak. 43.Txirbiltxoaren fabrikazioa. 44.Poleak. 45.Hilkutzak. 46.Kaizak. 47.Zurezko arkatzak eta antzekoak. 48.Zuraren eta posteen zaintza. 49.Dagoen edo sor daitekeen zuraren industriako beste edozein jarduera.</p>				
--	---	--	--	--	--